



Lawrence Friedman-en XX. mendeko Zuzenbide amerikarra

BENGOETXEA CABALLERO, Joxerramon*

Friedman eta bere lana

Friedman Stanford Unibertsitateko irakaslea izan da hainbat urtetan. Liburu ugariaren egilea edo bildumagilea da, eta horietatik gehienak, hogei liburu inguru, ospetsu dira. Artikuluak ere erruz idatzi ditu, ehundik gora, eta denak eraginkorrak izan dira.

Lawrence Friedman batez ere Zuzenbide amerikarraren historiagile eta Zuzenbidearen soziologo gisa da ezaguna. Lantzen duen soziologia ulerterraza da, baina ez horregatik azalekoa, Zuzenbidearen teoria landua eta sakona ikus baitaiteke bere lanetan. Errealismoaren ildoan kokatuta, Zuzenbideak gizartean jokatzeko duen errola eta babesten dituen interesak aurkitzen eta azaltzen saiatzen da Friedman, sinisturik baitago Zuzenbideak funtzio jakinak betetzen dituela, gizartean ordena eta gizataldeen eskakizunak eta eskubideak lehenago edo beranduago islatzen dituelarik.

Funtsezko optimismo filosofikoa ere aurki daiteke bere azterketa historikoetan, baina bilakaera historiko konplexu eta anitzean Zuzenbidea beste faktore bat bezala ikustea juristontzat oso umil izateko ikaskizuna da, askotan uste baitugu Zuzenbideak berak bilakaera historikoa tinkatzen duela. Friedmanek garbi erakusten digu –bere ikuspegi historiazale eta soziologikoari esker, eta bere azterketa zorrotzen bidez– Zuzenbidea tresna bat dela, gizartean gertatzen ari diren dinamikak bideratzen dituen. Baina, noski, Zuzenbideak sistema gisa autonomia erlatiboa lortzen du, eta Friedmanek beti aztertu izan ditu sistema horien azpiegitura sozial eta teorikoak. Horien artean funtsezko lekua hartzen dute juristek, Zuzenbidearen lantaldeak.

Baina jurista jakintsua, historiagile fina, kalitate handiko Zuzenbidearen teorigilea eta Zuzenbidearen zientzialari edo soziologoa izateaz gain, Friedman gure garaiko pentsalarietako bat da. *The Horizontal Society* bere azken liburuan (Yale University Press, 1999) ederki frogatu du ezaugarri hau, bere burua gizartearen pentsalari onenen tradizioan –alegia, Max Weber-engandik Ulrich Beck edo Pierre Bourdieu-
rengana doana gure europar kontinentean eta Pierce, Llewellyn, Galbraith-ekin batera Amerikako Estatu Batuetan– umilki baina sendo utzita. Hizkuntza ulergarria erabiliz, gizarte modernoaren arazoak eta dinamika sozial eta juridikoak azalduz.

* Joxerramon Bengoetxeak Filosofia eta Zuzenbidea ikasi zituen UNEDen eta Euskal Herriko Unibertsitatean, eta, bigarrenari dagokionez, 1990ean Edinburgoko Unibertsitatean egin zuen doktoradutza. EHUko Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea da 1990. urtetik. 1993-1998 bosturtekoan Europar Komunitateen Justizia Auzitegiko letradu izan zen, eta ondoren EHUra itzuli zen. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea izan zen hiru urtez. Oxford Unibertsitateko European and Comparative Law Institute-n sabbatiko txiki baten ondoren, Europar Komunitateetako Justizia Auzitegiko letradua da bigarren aldiz. Argitaratu dituen lan gehienak Zuzenbidearen teoria, Europar Zuzenbide Komunitarioa eta Filosofia Politikoiari buruzkoak dira. Eusko Ikaskuntzako kide da 1980. urtetik.

Liburu honetan horrelako gaiak aurki daitezke atalburuetan: eskubideen inflazioa, nazioen ugalketa, nazioen arteko tirabirak, nazioarteko harremanen desorekak, barrukoak eta kanpokoak, etorkinen arazoa, hiritarrak eta kanpotarrak, hauen definizio juridiko eta sozialak, etnizitatea gainditzen.

Liburua

Friedmanen *Zuzenbide Amerikarraren Historia* 1972. urtean argitaratu zen lehenenbizikoz, Stanford-en. Bigarren argitalpena 1984koa da. Liburua kolonia garaiko Zuzenbidearekin hasten da, lurraren jaraunspena eta jabetzaren inguruko gorabeherak aztertuz, eta bereziki esklabotzaren instituzioa ikertuz. Pertsonen *status* zibila ere, beste Zuzenbideetan eskas arakatu izan dena, ez da azertu gabe uzten liburuan; alegia, esklaboek, txiroek, emazteek izan zuten *status* murrizta edo *paterfamilias*-i lotua, erromatar Zuzenbidearen tradizioan bezala. Ondoren, Iraultza eta Konstituzioa jorratzen ditu. Frontier edo mendebaldeko mugak izan zuen eragina, Zuzenbide Zibilean batik bat, okupazioa eta lurrekiko tituluak, amerikar Zuzenbidearen kapitulu nagusi bat izan dira. Baina, aldi berean, ekonomian nagusitutako *laissez faire* motako kapitalismoa eta honek zituen akatsak gizarte amerikarraren ezaugarri nagusi izan ziren.

Amerikar federalizazioa, neurri handi batean, Merkataritza Zuzenbidearen eskutik etorri zen, trukea hasiera batean estatuen eskuduntza izaki, benetako merkatu nazionalaren sorrera oztopatua suertatzen zelarik. Eta, hemen, interesgarria izango litzateke Europar Komunitateen Zuzenbidearekin alderatzea: Europar aurretik merkataritza batasuna lortu dugu, batasun politikoaren zain geratzen garelarik; Estatu Batuetan, aldiz, ia ehun urte egon dira batasun politikoa gauzatu eta merkataritza batasuna, merkatu komun bakarra lortu arte.

Hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan zehar Zuzenbidean garrantzia izan zuen beste faktorea juristen lantaldea izan zen. Zuzenbide Prozesalaren benetako erreforma ez da gauzatzen hogei-garren mendea hasi arte. Une berean Zuzenbide Administrazioa jaioko da. Zentzu honetan, *Common Law* tradizioan bezala, Zuzenbide Pribatutik jaioko da, baina *Antitrust* Zuzenbideak garrantzi berezia hartuko du garapen honetan, eta Zuzenbide Administrazioa lehiaketa zuzenaren zerbitzura jarriko da. Agian honek emango dio amerikar Zuzenbideari europar Zuzenbideekiko berezitasuna: Zuzenbide Administrazioa, neurri handi batean, merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko sortua izan dela; Europako herri askotan, aldiz, monopolioak eta interes publikoko zerbitzuak bermatzeko, eta askotan Zuzenbide Administrazioak ezarritako prozedura bihurri eta neketsuak izan dira ekimen pribatua gelditu dutenak. Gaur egun ere, askoz errazagoa da Estatu Batuetan enpresa berri bat sortzea Europako edozein Estatutan baino. Noski, honen alde iluna zera da, pobreen eta bizitzan zorte gutxi izan dutenen egoera babesteko *welfare* Estatuaren bilakaera ere motelagoa izan dela Estatu Batuetan. Agian merkatu librea, *laissez faire* eta lehiaketaren irudi garden idilikoa egon daitezke honen atzetik. *The Underdogs* atalburuan modu interesgarri eta kritikoa batez aztertzen da arazo hau. Baina, poliki-poliki, Lan Zuzenbide bat ere azalduko da.

Liburuak alderdi hauek guztiak oso estilo arin eta errazean jorratzen ditu, inolako ponparik gabe, baina erudizio eta jakituriaz jantzia, ahozko estilotik oso gertu dabilelarik, *Law School lecture* edo Fakultateko ikasgaiak izango bailiran.

Hautatutako testua

Liburuaren epilogoak da aukeratu dugun testua. Amaierako atal honetan XX. mendeko Zuzenbide estatubatuarren errepaso azkar bat ematen dio Friedmanek hainbat gai ardatz hartuta, hala nola:

- federalismoaren bilakaera eta Gobernu eta Administrazio zentralaren bilakaera, federatutako Estatuaren kontura. Zentralismoa izan gabe, gero eta protagonismo gehiago hartzen dute agentzia nazionalak (alegia, federalak edo Estatu Batuetakoak eta ez estatu federatuenak);
- pluralismo edo aniztasun juridikoaren murriztapena Zuzenbide ofizialak hartzen duen garrantziaren aurrean, eta kultura juridiko instrumental edo funtzionalistaren garaipena. Atal honetan garbi ikusten eta eskertzen da Friedmanen ikuspegi sozio-juridikoa;
- eskubideen aldeko borroka, eskubide zibilena batik bat, eta prozesu honetan Auzitegi Gorenak eta beste Auzitegi Federalek izan zuten ardura eta protagonismoa, hiritarren eskubide zibileko kultura bat sortuz, nortasun nazionalaren osagai nagusi gisa. Oso zati politak idatzi ditu Friedmanek beltzen bazterkeriari buruzko jurisprudentiaren inguruan;
- Zuzenbidearen erreformari buruzko ataltxoan, Merkataritza Zuzenbidearen uniformatze eta arrazionalitzea jorratzen dira. *American Law Institute* delakoaren gidaritzapean Kode batuak proposatu

ziren, eta pixkanaka-pixkanaka Estatu ezberdinetan onesten ziren. Gertakari honek, Ingalaterra edo Eskozia bezalako beste *Common Law* sistemekin alderatuta bederen, garrantzi handia izan zuen Estatu Batuetan, *Common Law* kodifikatu edo sistematzeari ekin zitzaioelako. Zuzenbidearen teoria eta irakaskuntza bera aldatu egin ziren, errealismoaren haize freskoak iritsi bitartean. *New Deal*-en eskutik ere Zuzenbide Administratiboa eta Soziala agertzen dira, eta eskubide zibilen bul-tzadarekin uztartu ziren. Paradoxikoa dirudien arren, legegile aurrerakoienak eta eskubide zibilen defentsan gogorren murgildu zirenak Administrazio federalaren eskutik aritu ziren;

- prozesu honek halako Zuzenbidearen inflazioa ekarri zuen, eta juristen garrantzia indartu. Atal luzeenetan bi fenomeno hauek ikuspegi juridiko-soziologiko batetik aztertzen dira maisuki. Legelari mota berri bat agertzen da, *public policy* arloan aditua, eta, agian errealismoaren eta instrumenta-lismoaren eraginez, ezaugarri berezia ematen dio amerikar jurista publikoari, administratibistari. Zehaztasunez eta ñabardurez gozatzeko, azken bi atalak lerroz lerro irakurtzea besterik ez dago.

Europako Zuzenbidea

Bukatzeko, oso interesgarria deritzot Amerikako Estatu Batuetako Zuzenbideak izan duen bilakaera Europar Batasuneko bizitzen ari den garapenarekin alderatzea. Sasoi honetan Europako Etorkizunari Buruzko Konbentzio edo Batzarra bilduta dago. Batzuren ustez, Estatu-nazioen izaera eta protagonismoa ezinbestekoa da, De Gaullek "*l'Europe des patries*" izendatu zuena, eta nortasun nazionala Estatu-nazioetatik dario. Beste batzuren ustez, mugimendu federalista kasu, Europako Estatu Batuak eratu behar dira, eta Amerikako eskarmentuak zer pentsa eman dezake: agian ez dute nortasun nazional europarririk proposatuko, baina gutxienez bai europar eredu politiko eta soziala eta europar burujabetza komuna, nortasun nazionalaren arazoa alboan utzita. Dinamika federala eta uniformatzea (Europar armonizatze eta subsidia-ritate), pluralismoaren murriztea (berezitasun juridikoak mantentzeko oinarrizko eskubideak edota askatasun-komunitarioak urratzen ez diren bitartean), instrumentalismoa eta *public policy* ikuspegia (europar integrazioaren logika funtzionalista eta Estatuaren politikak koordinatzea, koordinazio metodo irekia), Europar Komunitateen Zuzenbidean eta Europar Batasunaren bilakaeran jazotako fenomenoak dira, neurri handi batean.

Agian europar integrazioa beste bide ezberdinetatik abiatu zen: gerrate itzelaren ostean, eta batasun politikoa lortzeko saioek porrot eginda, Europar Ekonomia Komunitateak merkatua eta integrazio komertzialari ekin zion lehen-lehenik, alta, Amerikan batasun politikoari ekin zioten lehenik, eta ondoren batasun ekonomikoa iritsi zen. Eskubideen aldeko borroka ere, Europar, norabide ezberdina hartu du, eragina Estatuaren Konstituzioetatik iritsi delarik, eta ez europar erakundeetatik, baina milurteko berriarekin batera Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Ituna onartu da. Berezitasunak berezitasun, Europakoa ere integrazio prozesu interesgarria dugu: pluralismoaren murriztapenak, gure euskal ikuspegitik, kezkatzeko motiboak eman arren, nortasun nazionalaren hainbat eta hainbat ezaugarri eder babestu eta garatzeko beta aparta ematen digu europar integrazio prozesuak.